

► EZ IDATZI EZER MEGAFONIAZ AGINDU ARTE

► ITZALI ETA GORDE SAKELAKO TELEFONOA

► ZER EDUKI BEHAR DUZU MAHAI GAINEAN?

1. Argibide-orria
2. Erantzun-orriak: 3 guztira (1, irakurmenarentzat; eta 2, idazmenarentzat)
3. Identifikazio-orria
4. Nortasun-agiria

Ezer falta baduzu, eskatu zure guneko zaintzaileari.

► ZER EGINGO DUZU GAUR?

Gaur **IDATZIZKO AZTERKETA** egingo duzu.

Idatzizko azterketak bi proba ditu: IRAKURMEN PROBA eta IDAZMEN PROBA. Bi proba horiek gaindituz gero, aurrerago, entzumen-proba eta mintzamen-proba egingo dituzu (begiratu atzealdean).

IDATZIZKO AZTERKETAREN ezaugarriak

- Azterketaren **bi probak egin behar dituzu** (irakurmen-proba eta idazmen-proba).
- **Azterketa-koaderno ez dugu jasoko**, zeuretzat da; beraz:
 - a) Azterketa-koadernoan, irakurri arretaz ariketa bakoitzaren aurreko oharra.
 - b) Irakurmen-probako ariketen **erantzunak aparte banatutako erantzun-orrian markatu** behar dituzu.
 - c) Idazmen-probako ariketak **egiteko, erabili aparte banatu zaizkizun bi orriak. EZ DA ORRI GEHIAGORIK BANATUKO.**

Idazmen-proba anonimoa izango da, beraz:

- Proba hau identifikatzeko bi ataletan berezitako orri handi bat daukazu. Orrialde bat zuretzat da, bestea IVAPentzat.
- Orri horretan duzu zure **identifikazio-kodea**. Laukitxoetan adierazita dagoena da.
- Geuk esaten dizugunean, **idatzi zure kodea idazmen-ariketen bi orrietan**, horretarako dauden laukitxoetan.

Zalantzarik baduzu, galdetu zaintzaileari.

Irakurmen-probaren erantzun-orria betetzeko modua: irakurri erantzun-orriaren atzeko aldean datozen argibideak.

Erantzun bat ezeztatu nahi baduzu, beheko ilaran (EZEZT.) markatu behar duzu ezeztatu nahi duzun aukera eta goiko ilaran berriro erantzun nahi duzuna. Begiratu irudi honetan nola ezeztatu dugun C aukera, horren ordean A aukera markatzeko:



Zalantzarik baduzu, galdetu zaintzaileari.

IDATZIZKO AZTERKETA amaitutakoan:

1. Kendu irakurmenaren erantzun-orriaren orri horia eta gorde zeuretzat.
2. Erdibitu identifikazio-orria. Gorde zeuretzat den orrialdea.
3. Prestatu entregatu behar dituzun orriak eta itxaron zure lekuan, zaintzaileak alde egin ahal duzula esan arte:
 - ▶ Irakurmenaren erantzun-orri zuria.
 - ▶ IVAPentzako identifikazio-orria.
 - ▶ Idazmen-ariketen bi orriak.

Bertratze-agiria behar baduzu, eska iezaiozu zauden guneko arduradunari azterketa bukatzean.

OHARRAK:

EMAITZAK ETA AHOZKO AZTERKETA

- ▶ **Irakurmen-probaren erantzun zuzenak** gaur arratsaldeko lehen orduan argitaratuko dira IVAPen web-orrian: www.ivap.euskadi.eus.
- ▶ **Azterketa idatziaren emaitzak 2018ko ekainaren 8an** argitaratuko dira IVAPeko eta Osakidetzako web-orrietan, eta **ahozko azterketa noiz eta non** egingo duzun iragarriko da.
- ▶ Ahozko azterketak **ekainaren 19an eta 20an izango dira**. Aurrerago zehaztuko ditugu hizkuntza-eskakizun bakoitza egiteko egunak eta orduak.
- ▶ **Ahozko azterketaren egunean, entzumen-proba eta mintzamen-proba** egingo dira, elkarren jarraian.

ERREKLAMAZIOAK

- ▶ **Erreklamazio-epea: ekainaren 28tik uztailaren 4ra**, biak barne. Erreklamazioak IVAPeko edo Osakidetzako edozein egoitzatan aurkez daitezke, bakoitza berean. Postaz bidaliz gero, hauek dira helbideak:
 - **IVAPeko deialdikoak:** Hizkuntza Normalkuntza eta Prestakuntza Zerbitzua. Donostia-San Sebastián kalea 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.
 - **Osakidetzako deialdikoak:** Osakidetza. Euskara Zerbitzua. Araba kalea 45. 01006 Vitoria-Gasteiz.